

# Lan hitzarmen «zail eta korapilatsua» sinatu dute LABek, Partaidek eta EIBk

Patronalak «erantzun egokiagoa» eskatu dio Hezkuntzari langileen balditzak hobetzeko

I. Petxarroman / Donostia

Lan hitzarmen «zail eta korapilatsua» sinatu zuten atzo Arabako, Bizkai-ko eta Gipuzkoako ikastolen patronalek eta LAB sindikatuak. Negoziazioa gogorra gertatu da aurtan, eta tartean sindikatuen greba deialdi bat izan da. Azkenik, baina, akordioa lortuta, pozik agertu ziren sinatzaileak, eta Hezkuntza Sailari deia egin zioten ikastolen eskaerei «erantzun egokiagoa» eman diezaien.

ELA sindikatua bakarrik falta zen atzoko sinatze ekitaldian. Izan ere, sindikatu horrek ez du ontzat jo lortutako akordioa, eta ez sinatzea erabaki du.

Imanol Igeregi negoziazio mahaiko lehendakariak jakinarazi zituen sinatutako akordioaren nondik-norakoak. 1999. urtean %3ko soldata igoera hitzartu dute, eta 2000. urterako, berriz, %2,7. Hala ere, bi urteotarako klausula bat finkatu dute, herri finantzetan arabera ikastoletako langileen soldata handitu ahal izateko.

Hala ere, lan hitzarmenaren gai eztabaidatuena ordu-tegiarena izan da. Akordioaren arabera, ikastoletako administrazio eta zerbitzuetako langileek 35 orduko lan astea izango dute; Igeregi gogoratu zuenez, «gure sektorea, publikoa ez den esparruan, 35 orduko lan astea ezartzen duen lehenetarikoa izango da». Irakasleen ordu-tegiari dagokionez, DBHko lehen zirkloko maisu-maistren ordu-tegia aldatu egingo da egungoarekiko, eta aurreantzean, 21 eskola ordukoa izango da. Beste etapa eta zirkloetan, bide bat zabaldu dute, eragina «mugatuagoa» izango dela onartu duten arren.

Aurrejubilazioen atalean ere akordioa lortu dute, eta bi urteko umeen geletako irakasleen homologazioari heldu diote. Bestalde, baimen eta eszendentzietan orain arteko akordioak «eguneratu eta egokitu» dituzte.

Halaber, hitzarmenak aurreikusten du mugaz gaineko lankidetzat. Ondorioz, Euskal Herri osoko ikastoletan pixkanaka langile guztien lan egoera berdindu egin nahi



Partaideko, Eusko Ikastolen Batzako eta LABeko ordezkariak, atzoko aurkezpenean.

dute, muga administratiboen gainetik. Azkenik, alde izenpetzaile guztiek Lan Batzorde bat osatzea erabaki dute, ikastoletako «irakaste jarduna» aztertzeke, hiru irizpideen arabera: lan harremantarako berezko esparrua sendotzea; langileen baldintzak hobetzea; eta proiektu pedagogikoen garatzea.

## LABen deia ELArri

LABen izenean Arantxa Urbe eta Esti Kerexeta izan ziren atzoko prentsaurrekoan, Iñaki Gonzalez sindikatuko Irakaskuntzako ataleko ardura-dunarekin. Arantxa Urbek onartu zuen ez dutela lortu nahi zuten guzti-guztia, baina azaldu zuenez, «ate bat

LABeko ordezkariak akordioak gauzatzeko lanean parte har dezatela eskatu zien bere kideei, eta baita ELAko ere

irekita» geratu da ikastolaz ikastola hitzarmena gauzatzeko. Eta horretan parte hartzeko deia egin zien bere sindikatuko kideei ez ezik, ELAko kideei ere. Jose Luis Sukia Partaideko

lehendakariak LABi eskertu zion bere eskaerak «ikastolen errealiterara egokitzeko» egin duen ahalegina, eta baita eremu publikotik datorren «oparotasunetik» aldentzekoa ere. Ildo horretatik, administrazioari eskatu zion laguntza egokiagoak eman ditzan, ikastoletako langileak beste batzuek «daukaten mailara» iritsi ahal izateko.

Eusko Ikastolen Batzaren izenean Ramon Madariagak egin zuen berba, eta pozgarritzat jo zuen azkenean ados jarri izana. Halaber, «lan hitzarmen aurrerakoia» dela adierazi zuen, eta ordu-tegiaren alorrean irizpideak jarren dituela gaineratu, etorkizunean herriaren eskaerei erantzuteko.

## Aljeriako hiru polizoi daramatzen unti bat dago Bilboko portuan

Itsasontziko kapitainak galerazi egin du hiru lagun horiekin harremanetan jartzea

Efe / Bilbo

DANIMARKAKO bandera duen unti bat -Thor Susanne izena du- dago Bilboko portuan, eta barruan hiru polizoi aljeriar daramatza. Antza, hiru gizaseme dira: Zaari Youssef, Mouhcine Mustapha eta Abbad Driss. Polizoiak itsasuntzia Marokoko Casablanca hiritik abiatu zenean sartu ziren untzian eta ordutik daude bertan.

Atzo inork ere ezin izan zuen mintzatu polizoi horiekin. Espainiako Iparmendebaldeko Errefuxiatuen Babeserako batzordeko koordinatzaile Javier Galparsorok beraiekin hitz egiteko ahalegin ugari egin zituztela esan zuen, baina antzuak izan zirela guztiak.

Izan ere, untziko kapitainak ezin zutela beraiekin hitz egin esan zien behin eta berriz, eta itsasuntziaren segurtasun konpainia ere kontra azaldu zen.

## Vigora bidean

Itsasuntzi danimarkarrak gaur Vigora bidean jarri nahi du. Itxura guztien arabera bertan joango dira hiru polizoi aljeriarrak ere. Ondoren Kanariar irletara joateko asmoa du unti horretako eskifaia eta datorren astean, berriz, berriro ere Marokora, Casablancara.

Bertan hiru polizoiak lehorrean lagoko dituztela pentsatzen da.

**TXIMINIA ALTZARIAK**

**ALTZARIAK AUKERAN**

1000 metroko erakusketa - Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, Lastaira eta Lastaira-azpikoen aukera handia

Sofa eta Besaulkiak, Logelak, Aulkiak, Mahaia

Ehunka Altzairu %50ean

Mallatu txikiak eta gabekoak

**LA CHIMENEA**  
altzariak

Osinalde poligonoa  
Tel.: 943 37 09 66 - USURBIL

Eros ezazu urtebetean interesik gabe

**J. Bengoa**

Bulebarreko arkupeak, 20 Mamut musika zentroa